

ZESTOA / Liburtegia txikienentzako gunea banatuta dago jada

Zestoako liburutegi berrian azken aldian zegoen isiltasun ezaren arazoa konpondu dela esan genezake, txikienei dagokionez behintzat. Kontua zen txikien gunean nahiko zarata izaten zela- gurasoak ipuinak kontatuz, umeen garraxiak, abar- eta beste erabiltzaileentzat hau nahiko deserosoa izaten zela.

Horrela, arazo hau konpondu nahian, udalak kristal bat jartzeko erabakia hartu zuen, ate batekin; horrela bi gunek komunikatuta egongo dira orain artean bezala, baina isolamendu honi esker zarata gutxiago izatea espero da.

Ala ere udal arduradunek argi utzi nahi dute liburutegia -eta haurren txokoa batik bat- ez dela haurtzaindegi edo jolas toki bat, eta denei ere arduraz jokatzeko eskatzen die liburutegi batean beharrezkoa den isiltasuna egon dadin.